

“GAITEGIZ ARTEAGAKO 2021EKO EGUTEGIA” LEHIAKETAREN OINARRIAK

PARTE-HARTZAILEAK

Edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan (adingabekoak guraso edo tutorearen baimena izan beharko du). Lehiaketan parte hartzeko, lehiaketaren oinarri guztiak onartu behar dira.

GAIA

Argazkiak Gaitegiz Arteagan egindakoak izan behar dira. Gaia "Artia" da, hau da, Gaitegiz Arteagako udalerriko paisaiak, kirola, baserriak, artea, eraikinak...

Antolatzaileek erabakiko dute argazkiak onartzen diren edo ez, gutxieneko kalitate teknikoak duten ala ez aztertu ondoren.

ARGAZKIEN BIDALKETA

Parte-hartzaile bakoitzak 3 argazki bidali ahal izango ditu gehienez ere. Posta elektronikoz bidal ditzakete udala.gaitegiz@bizkaia.org helbidera, edo ohiko posta bidez. Edo, nahiago badute, zuzenean Udaletxean aurkeztu ditzakete: Herriko Enparantza, 1 - Gaitegiz Arteaga - PK. 48314.

Argazkiak formatu elektronikoz edo papelez / fisiko bidali daitezke, azken hauen kasuan, parte-hartzaileek, argazkiak bueltan jasotzeko eska dezakete lehiaketa bukatu ondoren.

Ezingo dira aurkeztu aurretiaz aldizkari, egunkari zein liburu batean argitaratu diren argazkiak, paperezkoak zein Internet bidez irakurtzen direnak. Gainera, argazkietan pertsonak identifikatu badaitezke, argazkien egileak horien onespena beharko du.

ENTREGATZEKO EPEAK

Argazkiak 2020ko azaroaren 30eko 12:00ak arte onartuko dira.

EPAIMAHAIA ETA HAUTAKETA

Epaimahaia egutegia editatzeaz arduratuko den publizitate agentziako zenbait ordezkari osatuko dute.

12 argazki finalista aukeratuko dira “Gaitegiz Arteagako Udaleko 2021eko Egutegia” prestatzeko, horietako bakoitza egutegiko hilabete batean ager dadin.

Argazki irabazleek, lehiaketarekin zer ikusia duen oparia jasoko dute, gainera jasotako argazkien erakusketa bat izango da eta 2021eko egutegian agertuko dira.

Egutegiaren aurkezpena abenduaren 18an izango da.

ARGAZKIEN GAINEKO ESKUBIDEAK

Gaitegiz Arteagako Udalak eskubidea (ez eksklusiboa) izango du aukeratutako argazkiak informazio zein promozio helburuekin argitaratzeko, bai eta libreki erakusteko ere. Ez zaizkie hirugarrenei lagako baldin eta egile edo parte-hartzaileak horretarako baimena ematen ez badu. Parte-hartzaileen ardura izango da hirugarren pertsonak argazkien gaineko eskubiderik ez dutela egiaztatzea. Argazkien egileak baimena ematen du Gaitegiz Arteagako Udalak egilearen izen-abizenak adierazteko, ondoko helburuekin: argazki lehiaketa honetako sarituak edo parte-hartzaileak ezagutarazteko eta 2021eko egutegian sartzeko.